# BERRIGARA

251. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, urriak 18





# Modako arropak

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK

# Zimur, mantxa eta akne arazoak konpontzeko azken kosmetologia aurrerapena

## %100 naturala, %100 eraginkorra









*BIOPEELING NEODERMA belarretan oinarrituta dago. Tratamendu honek exfoliazioa eragiten du, hau da, azaleko kanpo geruza ezabatu, eta, beraz, poroa zabaldu egiten du. Zure azala BERPIZTU eta GAZTETU egingo da.*

neoderma
BIOEPELING
BY DOCTOR
Charles

**Tratamendu hau AMETSen baino ez duzu aurkituko**

Amets
ESTETIKA

**INFORMA ZAITEZ!!**

**Masterreka 19, behea. BERGARA.**

**☎ 76 46 53**

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
**Zuzendaria:**
Eneko Azkarate
**Erredakzioa:**
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elortza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea
**Tirada:**
4.200 ale.
**Portadako argazkiak:**
Hilario Azkargorta.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599
**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du**

Z E B E R R I D A ?

# LUIS LENISORO

## *Amilotx tabernakoa*




**- Zenbat jende etortzen da Gatzagako ehiza postuen zozketara?**

- Eguraldiaren eta asteko egunaren arabera kopurua aldatzen joaten da; eguastenean 30 lagun egon ziren, martitzenean 13 eta astebukaerako zozketara, berriz, 75 bat lagun etortzen dira. Zozketa astelehenetik eguakitzera bitartean egiten da arratsaldeko 8etan tabernan bertan edo Kiroldegian. Izenematea 7etatik 8etara izaten da zabalik, eta jarraian zozketa egiten da. Eguakitzetan zapatu, domeka eta astelehenerako zozketa egiten da eta asko luzatzen denez, orduerdi aurreratuko dugu.

**- Nongo jendea etortzen da. Zer behar da zozketan sartzeko?**

- Jende gehiena Arrasate edo Bergarakoa izaten da eta Oñati, Aretxabaleta eta Eibarreko jendea ere etortzen da. Bestalde, zozketan sartzeko ehiza lizentzia eta segurua behar da. 52 postu dira baina jende gutxiago etortzen bada postu onenak zozketatzen dira. Postu bakoitzagatik 1.600 pta. ordaintzen dira baina Federazioaren txartela (2.000 pta.) izan ezkero erdia.

***"Gatzagako ehiza postuen zozketara Bergara eta Arrasateko jendea dator batipat"***

251-280

I T U R R I O N E T I K

## Iraburuko ur depositoaren inguruan berdegunea jartzeko asmoa

Iraburuko beheko depositoa konpondu eta goialdean sortzen den berdegunean banku batzuk eta arbola batzuk jartzeko asmoa dauka Udalak. Hirigintza Batzordea Iraburu eta Agarre-Etxeberriko depositoak botatzeko aukera aztertzen izan zen baina azkenean Iraburuko beheko depositoa ez da botako. Agarre-Etxeberri eta Mouko depositoak, berriz, bota egingo dira, azkenaldian ez daukate inolako erabilerarik eta. Iraburun, esan bezala, hainbat konponketa-lan egingo dira: eskilarak berriztu ondoren, berrizte lanak egingo dira eta jarraian herritarrentzat berdegunea egokituko da bertan. Konpontze-lanak laister hasiko dira.

E S A N D U T E

"[Maritxu Kajoin] Txikiteoaren eguna ospatzen dela eta festa honek berekin dakar edatearen goraipamena. Zer esan honetaz? Bada ederra dela trago bat edo beste jaterakoan egitea. Baina tristura ematen duela bere buruaren jabe ez dela, kalean balantzaka, hainbeste jende ikustea"

**RUFINA OLASAGASTI**
Udaleko Kultur Jestorea
ARRASATE PRESS

●

"Nekazaritza ekolojikoaren produkzioak %1a suposatzen du Gipuzkoako nekazaritzan. Europar Batasuneko dekretuak eta laguntzek egoera hori aldatzen lagunduko dute, esplotazio gehiago izango dira"

**TOMAS LARRAÑAGA**
Nekazaritza ekolojikoaren Federazioko presidentea
EL DIARIO VASCO

●



**TWISTER**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



**I.D. (Identicacion)**
Eguena: 20:00 (Zine-kluba).



## Zinea

▼▼ **Jan De Vont** *Speed* filmearen zuzendariak efektu berezi ikusgarriez jositako filmea egin du oraingoan. Estatu Batuetan bi ikerlari talde tornadoak aztertzen ari dira: *Jo* (**Helen Hunt**) eta bere lagun gazteak batetik eta aurrekoen metodoak kopiatu dituen *Jonas* doktorearen (**Cary Elwes**) taldea bestetik. Akzioz beteriko filme honetan amodio istorioek ere beren tartea izango dute.

▼▼ Munduko futbol zelai guztietan egoten diren *hooligan* taldeei buruzko filmea egin du **Philip Davis** zuzendariak. Polizia talde bat Ingalaterrako 2. mailako talde baten jarraitzaileen artean infiltratuko da. Biolentzia eragiten duen *John* gazteari (**Reece Dinsdale**) biolentzia jasatea tokatu zaio orain... Jatorrizko bertsioan.

▼▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua eskeiniko du igandean 12:30etan Novedades aretoan. Alfredo Glez. Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bandak honako lanak joko ditu: *Trumpet tune* (W. Boyce), *El pescador de perlas* (G. Bizet), *Rikudim* (J.V. der Roost), *Gigantes y cabezudos* (M.F. Caballero) eta *Festive overture* (D. Shostakovich). Sarrerak 200 pezetan salgai.

## Deiak

▼ **Eibar-Gasteiz** autopistari buruzko panel informatiboak Kultur Etxeko sarreran.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, hilak 23, 18:30etan Seminarioan.

▼ **Las Brujas** musika taldearen kontzertua gaur 22:00etan Nahikari tabernan.

▼ **Santi Arrieta**ren eskulturak Kultur Etxean urriaren 20ra arte.

▼ **Ana Fernandez**en margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Mendi irteera** 14 urtetik gorako gazteentzat Urederrara egun guztirako, urriaren 27an. Irteera goizeko 8:30etan Beheko estazioan. Izen-ematea Pol-Polen.

## Ogia

▼ **Igandea 20:** Ogizun.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 18:** Estella/Amezua.
▼ **Zapatua 19:** Mozos/Ruiz.
▼ **Domeka 20:** Mozos/Morales.
▼ **Astelehena 21:** Camacho/Azko..
▼ **Martitzena 22:** Puy/Español.
▼ **Eguaztena 23:** Guallar/Corcuera.
▼ **Eguena 24:** Estella/Irizar.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

Tartufo Jatetxea
San Juan auzoa, Elgetarako bidea. ☎ 76 35 51

JATETXEA
• Astebukaeretako menu bereziak prezio ekonomikotan: saiheskia, paellak...
• Bazkari/afariak enkarguz.

TERRAZA
Gazte jendearentzako menu bereziak prezio ezinhobeagotan.

# Taun-Taunen azken lana

## "Ubu babel" igandean estreinatuko da Zabalotegin

**Taun-Taun** txotxongilo taldeak bere lan berria estreinatuko du igandean arratsaldeko 8etan Zabalotegin. Alfred Jarri frantziarrak Ubu pertsonaia aurkeztu zueneko 100. urteurrena betetzen denez, Taun-Taunekoak Jarriren "Ubu kateatua" antzezlanean oinarritutako "Ubu babel" izenburuko obra sortu dute. Jarrik Ubu pertsonaiarekin lau antzezlan idatzi zituen eta Itsaso Azkarate eta Miren Urkijo Taun-Tauneko kideen hitzetan, *"antzerkiaren estetikan izugarrizko aldaketa ekarri zuen. Pinturan inpresionistekin gertatutako antzerako zerbait gertatu zen antzerkigintzan. Antzezlan errealista eta naturalistak egiten ziren ordurarte eta Uburekin pertsonaia batere errealak eta groteskoak heldu ziren. Orduko antzerki legeak erabat hautsi zituen Ubuk eta "Ubu errege" lanaren estreinuak sekulako iskanbila sortu zuen Parisen 1896an. Antzerki absurdoaren aitzindaria dela esan daiteke".*

Erronka haundia izan da Taun-Taunentzat Ubu egokitzea. Urkijok eta Azkaratek esaten duen moduan, *"ikert lan bat izan da eta arrisku haundiko apostua egin dugu, obra hau aukeratu eta kanpoko zuzendari bat ekartzean. Ziur gaude jendearen jarrera ez dela epela izango".*



"Lan honek ez dauka zerikusirik aurrekoekin".

Joan Baixas katalana da laneko zuzendaria. Txotxongilo antzerkian oso ezaguna da Baixas eta bere garaian La Claca taldearekin lan egin zuen. Joan Mirorekin landutako "Mori e merma" lana oso arrakastatsua gertatu zen. Baixas margolaria ere bada eta Taun-Taunen lan honetan antzerkia eta plastikaren arteko konbinaketa gertatzen da.

"Ubu babel"en Ubu, errege izan nahi ez duen pertsonaia aurkezten zaigu. Ubuk morroi izatea nahi du, kateatuta bizi eta ez du nahi askatasuna bere gain hartzea. Taun-Taunekoek gaurko gizartearekin erlazio gehiago duelako aukeratu dute. *"Lanak testu oso gutxi dauka eta objetuen manipulazioa dago baina aktoreekin. Txotxongiloak panpin haundiak dira lan honetan, pertsonaiak fantotxe batzuk dira, aktore oso enmaskaratuak. Aktore lanean Virginia Imazen laguntza izan dugu".* Txotxongiloak alde batera lagatzen ari diren galdetu diegunean zera adierazi digute Mirenek eta Itsasok. *"Ez da gure asmoa baina ez dugu gauza batera edo bestera itxi nahi. Lan honek ez dauka zerikusirik aurrekoekin eta lan talde oso indartsua izan da (ekainetik ari gara entsaiatzen). Berriz ere antzerki klasikoa bueltatzen ari da eta uste dugu antzerkia, gutxienez, apurtzailea izan behar dela".*

Igandeko estreinurako sarrerak 500 pta.tan jarriko dira salgai (langabetuak eta Gazte Txarteldunak 300 pta.) Kultur Etxean eta takilan bertan. Ondoren, Irun, Gasteiz, Bilbo edo Avignoneko antzerki jaialdietan izango dira Taun-Taunekoak.

**"Iker lan bat izan da eta arrisku haundiko apostua egin dugu lan honetan"**




ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

## Ahoz-aho...

Agur t´erdi:

Gutun honen bidez Bergarako AEK Euskaltegiak gurasoei zuzenduriko kanpaina berezian gertatutakoaren berri, eta honen aurrean duen iritzia eman nahi dizue.

a) 94-95 ikasturtean Akulu AEK Euskaltegiak gurasoendako kanpaina berezi bat antolatu zuen eta ikastetxe guztiei eskeini zien. Horren ondorioz San Martin eskolan tade bat osatu zen, eta eskolan bertan ematen ziren eskolaorduak, umeak klasean zeuden bitartean.

b) 95-96 ikasturtean talde horri ikasle berri batzuk gehitu zitzaizkion.

c) Aurtengo udan, Eusko Jaurlaritzak antolatu eta ordaindutako kanpaina berezi bat ipini zen martxan herri desberdinetan. Kanpaina hau, “Ahoz aho, belaunez belaun”, gurasoei zuzendua zen eta, bere helburua, euskararen jarraipena indartzeko gurasoen inplikazioa lortzea zen.

d) Kanpaina hau Bergarara etorriko zela jakinarazi zigun Udaleko Euskara Teknikariak. Era berean kanpainako txostena emanaz, gure iritzia eskatu zigun (zer egin genezakeen, nola atera etekin handiena, kanpainak piztutako motibazioak nola mantendu eta bideratu eta abar).

Erantzun gisa, Akulu AEK aurreproiektu bat gertatu zuen kanpainaren helburuak eta proposamen metodolojikoak zehaztuz.

e) Proiektua jaso ondoren, AEK proiektutik kanpo zegoela adierazi zitzaigun. Azalpen gisa, Udalak hartutako erabakia zela esan ziguten.

f) AEKk arrazoiak eskatu zizkien, hurrenez hurren, Euskara Teknikariari, Koldo Pereira zinegotziari (Euskara Batzordeko burua) eta Victoriano Gallastegi alkateari berari.

Hauek argi utzi zituzten arrazoiak honakoak dira:

1.- Euskara Batzordeko buruak hartutako erabakia zela; eta ez Euskara Batzordeak berak.

2.- Erabakia honela arrazoitu zuten: Udal Euskaltegia dagoen bitartean eta honek eskeintzari aurre egiteko ahalmena duen bitartean, Udalak ez du Akulu-AEK Euskaltegiarekin kontatuko.

3.- San Martin eskolan funtzionatzen zuen taldeak AEKrekin izango zuen jarraipena.

g) Uda partean burutu zen kanpaina. Erakusketaren inguruan burutuko ziren ekintzak bertan behera gelditu ziren.

h) Hasi berria dugun ikasturte honetan guraso taldeak eratzen hasi dira, aurretik ibilitakoak bertan sartuz, eta AEKri inolako abisurik eman gabe.

Guzti honen aurrean Akulu AEK Euskaltegiak adierazi nahi du:

1.- Bergarako herritarrek euskara ikasteko aukera guztiak ezagutzeko eskubidea dutela.

2.- Herritarrei informazio osoa eta egiazkoa emateko obligazioa duela Udalak.

3.- Herri erakunderen bat baztertzeko erabakia aurkezten diren proiektuen arabera, eta lan egiteko erakusten duten gaitasunaren arabera hartu behar dela.

4.- Udalak dagoeneko aukera ederra izan du AEKren lana ezagutzeko. Udalak antolatutako beste kanpaina baten barruan, “Euskara merkatal mundura”, Akulu-AEK Euskaltegiak proiektu berezia landu du eta horren jarraipena Euskara Batzordeak egin du.

Zure/zuen iharduera hezkuntza, kultura eta gizarte dinamikan uztartzen denez, gertatutakoaren berri izan behar duzula/duzuela uste dugu. Eta badakigu, informazio hau ez dela plazaratu.

Gutun honi eman diozu/diozuen arreta eskertu nahi dizugu/dizuegu. Besterik gabe,

AKULU AEK EUSKALTEGIA

## Shotokan-karatea

Urte asko egin ditut herriko gimnasio ezagun batean Shotokan-karate klaseak ematen; baina orain, lerro hauen bidez esan nahi dizuet gaur egun gimnasio ezagun horretan ez dela karate mota hori erakusten, Kiokusinkai modalitatea erakusten baita (mota hori gutxietsi barik eta nire errespetu guztiarekin), eta hori frogatu egin daiteke Karateko Euskal Federazioak eta karateko Gipuzkoako Federazioak emandako ziurtagirien bidez.

Esan beharra dago bi modalitate horien artean ezberdintasun haundiak daudela, bai teknika aldetik eta baita kata aldetik ere (borroka imaginario moduak dira katak).

Gauza bitxia izanda, pasa den irailaren 27ko Berrigaran, gimnasio ezagun horretan eskaintzen diren jardueren propaganda egiterakoan, Shotokan-karatea ere eskaintzen zela, eta hori ez da egia.

Hori dela eta, hauxe esan nahi dut: zintzoak izan gaitezen egiten dugun propagandarekin, jendea nahastu barik.

Esandakoa ziurtatzen duten federazioak: Karateko Euskal Federazioa eta Karateko Gipuzkoako Federazioa.

JOXEAN IÑARRA. (SHOTOKAN KARATEKO GERRIKO BELTZA. 2. DAN. HEZIKETA FISIKOAN LIZENTZIATUA MADRILEKO INEFEN).

## Tiiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



## 1946an jaiotakoen eguna

1946 urtean jaiotako bergararrek euren anaiarteko eguna ospatuko dute azaroaren 16an. Arratsaldeko 7etan meza izango da Santa Marinan, ondoren txikiteoa eta 21:30etan Ibaiak taldeak alaitutako afaria Lasa jatetxean. Izen-ematea (8.000 pta.) Kutxan egin daiteke azaroaren 7a baino lehen.

## Aske aisialdi taldea

Aske aisialdi taldea bihar larunbata 4retan hasiko da urteko ekintzekin. 7. eta 8. mailako ikasleei parte hartzeko deia egiten zaie.

### HILDAKOAK

**Maria Aristimuño Kortabarria**
Urriak 10, 73 urte.
**Francisco Urzelai Oroiz**
Urriak 10, 59 urte.
**Juana Iñarra Orueta**
Urriak 11, 87 urte.
**Angela Sanchez Nozal**
Urriak 16, 80 urte.

### JAIOTAKOAK

**Sara Moreno Fernandez**
Urriak 6.
**Xabier Albisu Peñas**
Urriak 7.
**Jokin Narbaiza Irizar**
Urriak 9.
**Asier Lasheras Gimber**
Urriak 11.
**Yoel Sanchez Rodriguez**
Urriak 14.

# Galindo jeneralaren kontrako mozioa onartu zen Plenoan


Abiadura Haundiko Trenaren kontra azaldu zen HB.

EA eta HBren aldeko botoekin, Enrique Rodriguez Galindo jenerala "pertsona non grata" izendatzea erabaki zen astelehenenko Plenoan. EAk aurkeztutako mozioaren hirugarren puntuan EAJk ezezko botoa eman zuen *"pertsona bat 'non grata' izendatzea nahiko testimoniala delako eta beti ere errugabetasun-presuntzioa gorde behar zaiolako"*. PSE-EEko zinegotzia mozioaren bost puntuen kontra azaldu zen. Gainerako lau puntuak EAJ, HB eta EAren botoekin onartu ziren.

Lehendabiziko puntuan Jose Antonio Lasa eta Jose Ignacio Zabalaren bahiketa, tortura eta hilketa eragiteagatik auziperatuta dagoen Galindo jenerala libre uzteagatik Udalbatzaren haserre bizia publikoki adieraztea jasotzen zen. Bigarrenean Entzutegi Nazionalari Galindo libre uztea berriz azter dezala eskatu eta bahiketa, tortura eta hilketa delituen parekoengatik edo ez hain larriengatik prebentibo egoeran eta auziperatuta dauden gainerako presoei aplikatzen zaizkien irizpide berak aplikatu diezazkiotela. Laugarrenean CESIDeko paperak ez desklasifikatzeagatik Udalbatzaren erabateko desadostasuna adieraztea, Euskadin pakea lortzeko bidean atzerapausu gogorra delako. Azkenean, testua Entzutegi Nazionalari zein Galindo berari bidaltzea onartu zen.

### Abiadura Haundiko Trena

Bestalde, Plenoko beste puntu batean, EAJ, EA eta PSE-EE alderdiek atzera bota zuten HBk Abiadura Haundiko Trenaren (AHT) inguruan aurkeztutako mozioa. Bertan MOPTMAri zein Jaurlaritzari dagoen informazio guztia eskatzea, Udalak informazio guztia jendaurrean zabaltzea, Angiozar Bailarako Batzarraren iradokizunak Udalbatzan ez aztertzea salatzea edo proiektuarekiko oposizioa adieraztea (herrirako izango lukeen eragin ekolojikoagatik) jasotzen zen.

Udal gobernua osatzen duten alderdiek ez zuten mozioa onartu oraindik trazaketa definitiboa egiteke dagoelako. Hala ere dagoen dokumentazioa eskatzeko ados azaldu ziren.

Zure konfidantzako denda
LASAGABASTER
Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27
ARRASATE

## Egineko mus txapelketa

Egineko mus txapelketaren kanporaketa jokatuko da bihar larunbata, hilak 19, 16:30etan Antzuolako Larrea tabernan. Izenematea (3.000 pezeta bikoteko) bertan egin daiteke.

## Behobia-Donostia

Azaroaren 10ean jokatuko den Behobia-Donostia probara autobusez joan nahi duten antzuolarre Surpe eta Gailur tabernetan eman dezakete izena. Bueltan bazkaria egingo da Olalde elkartean. Bidaiak 1.000 pezeta balio du eta bazkarira joanez gero, 2.500 pezeta.

## Aranzabal Lagunartea

Aranzabal Lagunarteak dei egiten die taldeko kidei larunbatean, 13:00etan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko. Besteak beste irteeraren bat antolatzea aztertuko da.

## Aritzeta abesbatzaren deia

Aritzeta abesbatzak dei egiten die abesbatzeko partaide izan nahi duten herritarrei (emakumezko zein gizonezkoei). Interesatuak astelehen eta asteazkenetan gaueko 9etatik aurrera Aritzetak Zabalotegin egiten dituen entsaiuetara ager daitezke.

## Futbolin txapelketa

Lamek antolatuta, azaroaren 16an, 5etan, Euskadiko futbolin txapelketa jokatuko da Durangoko Cambridge diskotekan. Izenemateak bikoteko, 500 pta. balio du eta irabazleek 50.000 pta. irabaziko dituzte. Argibideak 908 77 40 10 telefono zenbakian.



Gipuzkoako beste 12 herritan bezala, Bergaran ere euskara bultzatu nahi da merkataritzan.

# Merkataritzan euskara bultzatzeko jarduerak martxan

### *Euskara klaseak, letrero eta idazkiak euskaraz...*

Koldo Pereira zinegotziak, Estepan Plazaola euskara teknikariak, Sebastian Imaz komertzianteak eta Miriam Garate teknikariak *Euskara Merkataritzara* kanpainaren berri eman zuten astelehenean prentsaurrean. Kanpaina honek herriko komertzioetan euskararen erabilera bultzatzeko helburua dauka eta iaz jarri zen martxan. Koldo Pereira zinegotziak kanpaina iraunkorra izateko itxaropena azaldu zuen, merkatariekin izandako hartu-emanen garrantzia azpimarratuz. Era berean, merkatariei hartu-eman horiek nola ikusten dituzten galdetu eta lehentasunak elkarrekin zehazteko beharra adierazi zuen. Estepan Plazaolak, berriz, aurten egingo den eskaintza azaldu zuen: euskaldun zaharrek merkataritzako euskara lantzeko aukera izango dute eta euskara ez dakitenentzat ere euskara ikastaroak izango dira Udal Euskaltegian (alfabetatze klaseak) eta AEKn (euskalduntze klaseak); Udalak testuen zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eskeiniko die merkatariei eta, nobedade bezala, jendearen bistan egoten diren idazkiak euskaratuta eta diseinatuta banatuko zaizkie dendariei. Aipatutako idazkiak bost tipotako soportetan eta hiru tamainu diferentetan banatuko ditu Udalak.

Iaz kanpainan kolaboratzeko prest azaldu ziren 200 bat komertzioetatik pasako da Miriam Garate hurrengo astetan eta abendurako lehen balorazioa egitea espero da.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



KORTA-ZAR
Txokolategia
*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

# Presoak Euskadira ekartzeko idazkia sinatu dute sindikatuek

## *Bergarako sindikatu delegatuen %61ak sinatu du*

LAB sindikatuak euskal presoen Euskal Herriratzea lortu arte hainbat ekitaldi antolatuko dituela jakin arazi zuen asteazkenean prentsaurrean. LAB, ELA, STEE-EILAS, CC.OOeko Ezker Sindikala eta ESK-KUIS sindikatuek Senideak presoen elkarteak euskal gizarteari zuzendutako 7 puntutako agiria izenpetu dute azken hilabetean.

Txema Garro eta Jose Luis Loidi Deba Garaiko LABeko ordezkariek emandako datuen arabera, Leintz Gatzaga eskualdeko 106 enpresetan adhesioak lortu dira. Bertan diren 409 delegatu sindikaletatik 303k (%61ak) sinatu dute agiria: 128 ELAtik, 111 LABetik, 52 CC.OOtik, UGTtik 9 eta ESK-CUISetik 3. Bergaran %61eko portzentaia errepikatzen da, 159 delegatuen artean 98 sinadura jaso baitira. Loidik esan zuenez, *"presoen Euskal Herriratzea ezinbesteko esijentzia da eta orain arte ezker abertzalearen aldarrikapena izan bada ere gero eta sektore gehiago gehitzen ari dira"*.

Asteburuakorako bost itxialdi deitu ditu LABek, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin, Antzuolan (elizan) eta Bergaran. Itxialdia zapatuan goizeko 9etatik eguerdiko ordubatak arte egingo da Bergarako Udaletxean eta jarraian manifestazioa izango da herriko kaleetatik "Langileok presoen alde" lemapean. Loidiren hitzetan, *"presoak Euskal Herriratu arte hainbat ekimen bultzatuko ditugu Hego Euskal Herrian"*.




Asteazkenean LABek emandako prentsauerrekoa.

### Ikastaroak Jubilatuetan

Jubilatuen egoitzak, Kutxa Fundazioarekin batera,3. adinekoei zuzenduriko ikastaro bereziak antolatu ditu. Ikastaroak honako hauek izango dira: *Informatikan hastapenak* (20 ordu, 8.500 pta.), *Textu tratamendua Word 6.0* (20 ordu, 8.500 pta.), *Oroimena ezagutu eta hobetu* (8 ordu, 1.000 pta.), *Giza komunikazioa* (8 ordu, 1.000 pta.), Marrazkia (30 ordu, 6.000 pta.) eta *Jaiotzak* (12 ordu, 2.500 pta.). Izen ematea Kutxako edozein bulegotan egin beharko da urriaren 31a baino lehen.

### Gerontologiazko ikastaroak

Arrasateko ICTE Hirugarren Adineko Institutuak gerontologiazko ikastaro espezializatuak antolatu ditu. *Psikopatologia agureengan* eta *Zaintzaindariak. Familiarte eta profesionalak* izenburuko ikastaroak emango dira eta bereziki pertsona nagusien zainketa eta ardura daukaten profesionelai zuzenduta daude. Argibideak 79 02 11 eta 77 05 00 telefonoetan.

### Udazken Kulturala martxan

Igande honetan, Bandaren kontzertua eta Taun-taunen emanaldiarekin, aurtengo Udazken Kulturaleko programazioa jarriko da martxan. Datorren ostiralean, hilak 25, Tapiola abesbatzaren kontzertua izango da Frontoian 8etan eta azaroaren 1ean, berriz, Chulillako (Valencia) Bandari harrera egingo zaio Bergarako Udaletxean.







# Erreziklajea

## Gero eta plastiko eta paper gehiago erreziklatzen da

**Orain dela urte batzuk erreziklajea zer zen ere ez genekien; orain, berriz, hitzetik hortzera darabilgun berba da. Gure artean, oraindik ere, materia gutxi erreziklatzen dira: papera, bidrioa eta pilak, batez ere. Europako beste herrialde batzuetan, ostera, erreziklajearen kultura oso zabaldua eta barneratua dute.**

Kontsumo erak aldatzen doazen heinean zabor kantitatea gehituaz doa. Gaur egun, pertsona bakoitzak, egunean, kilo bat zabor sortzen du. Bergara, Antzuola eta Elgetan, aurten, abuztua bitartean, bi tona eta erdi zabor baino gehiago batu da; eta San Kristobalgo hondakinen gordailuan (txatarra, egur, hondakin, plastiko eta paper-kartoia), epe berean, tona erdi hondakin bildu da.

### Lehen dena erre

Orain dela urte batzuk arte jaki eta edari asko granelean erosten ziren; botilak bueltatu egiten ziren; enbutidoak, fruta, gazta... ez ziren bere pacackingean etortzen. Ondorioz, etxeetan ia ez zen zaborrik sortzen; eta sortzen zena sutan erretzen zen. Gaur egun erosketen hiru laurden, esaterako, zaborretara botatzen dugu, erosgaiak biltzeko direlako. Denda handiak irekitzearekin batera, enbaseen gehitzea eta konplexutasuna etorri zen. Dendaria ez egotean eroslea bakarrik geratzen da produktuaren aurrean, eta produktuak bereizteko modua da enbasea.

### Bidrioa erreziklatzea

Atzerrian, Alemanian, batez ere, jendea oso kontzientziatuta dago, eta produktuak erreziklatzeko ohitura oso zabalduta dago. Gure artean, gutxiago dira erreziklatzen diren gaiak; erabat erreziklatzen dena bidrioa da. Bergaran 32 bidrio edukiontzi daude, eta 1995ean, 235.238 kilo jaso ziren. Edukiontzien gestioaz Mankomunitatea arduratzen da; jaso eta erreziklatu, berriz, Laudioko Vidrala enpresak egiten ditu.

Vidralakoek adierazitakoaren arabera, Deba Garaiko herri guztietan antzerako proportzioak batzen dira. *"Ontzi ba-*




Erreziklajearen etsaia zakarrontzia da. Errezagoa da zikinak zuzenean zakarrontzira botatzea, edukiontzira botatzea baino.

*tzuk 8 egunetan betetzen dira, beste batzuk hilabetean".* Beteta daudenean husten dituzte edukiontziak. *"Abenduan eta urtarrilean batzen da gehien. Maiatzean, uztailean, abuztuan eta irailean ere bai; gainontzeko hilabeteetan dexente jeisten da".*

Erreziklajerako bidrio guztiek balio ez dutenez, lehenengo sailkatu egin behar da. Bidrioari lantegian zikinkeriak kentzen dizkiote, dena garbi laga arte, eta txiki-txiki egiten dute. Kalitateari dagokionez, *"erreziklatutako bidrioak ez du galtzen, hasierako kalitatea gordetzen du".*

### Papera eta kartoia Antzuolan

Antzuolako Uzarraga enpresa papera eta kartoia berreskuratzeaz arduratzen da, eta ez erreziklajeaz, Juan Ramon Solanak adierazi digunez: *"zabortegira bota behar den papel-kartoia batu egiten dugu, paper motaren arabera sailkatu, prentsatu, eta gero zabortegira eramaten dugu. Erreziklatzeak produktua berriz aprobetxatzea esan nahi du".*

Deba Garaiko enpresetako eta kaleko edukiontzietako paper-kartoia batzen dute. Bergarako kaleetan 30 edukiontzi daude, Garbilek astelehenetan eta ostegunetan hustu, eta batutakoa Antzuolako Uzarraga enpresara eroaten dute. *"Bestetik, enpresetan edukiontziak jartzen ditugu, eta betetakoan kamioietan ekartzen dira. Paperak merkatuan duen prezioaren arabera ordaintzen dugu".*




**1996ko lehen zazpi hilabeteetan, urtarriletik uztailera bitartean, 101.601 kilo batu dira Bergaran, bataz beste, hilean 21.667 kilo. Deba Garaiko herrien artean Arrasateren atzetik Bergara da bidrio gehien batzen den herria.**

**Aurki baliteke kalean beste edukiontzi bat ikustea. Metala, plastikoa eta tetrabrika erreziklatzeko izango da.**

### 50 urteko langintza

Juan Ramonen aurretik aita ibili zen paper-kartoi berreskuraketan. *"Nik betitik ezagutu dut etxean langintza hau. Akordatzen naiz: lehen era guztietako jendea etortzen zen paper-kartoiarekin: ikasketa bidaia egin nahi zuten ikasleak paper artean pisua egiteko harria sartuta, atezainak... Zegokiena ordain-*

# Jakizu

- Astronomoek diote espazioan dagoen zabor mordoak zaildu egiten duela euren lana.
- Zaborraren %40 enbaseek osatzen dute.
- Enbaseak egiteko papera erdira jeitsiko balitz, urtean 60 milioi zuhaitz salbatuko lirateke.
- 200 gramoko bonboi kaxa batek pisu bera du plastiko, paper eta aluminioan.
- Produktu baten prezioan sartuta egoten da produktuaren enbasea eta hori desegitea.
- Neurri desberdinetako enbaseak daude:
  - 4 yogurren enboltorioak 10 pta. balio du.
  - Freskagarri baten latak 20 pta.
  - 9.000 pta.ko perfume baten botilatxoak eta kaxak 8.000.
- Onenak pila berdeak dira, ez dute merkuriorik edo kadmiorik.
- Pilarik kutsagarrienak botoi itxurakoak dira. Hobe da pilen ordez argindarrarekin aritzea.
- Tabakogintzak urtean 29.000 tona aluminiozko paper erabiltzen du.
- PVCezko botilak arriskutsuak ei dira, likidoa binilozko kloruroarekin nahasten dutelako.
- Zelofana desegiteko urtebete eta hiru urteko epea behar da.




Antzuolako Uzarraga enpresan papera, kartoia, ehuna eta plastikoa berreskuratzen da, gero ereziklatzera bidaltzen da.

*tzen zitzaien. Orain bakarrik kantitate handiekin ibiltzen gara".*

Lehen ez zuten inolako konpetentziarik, baina azkenaldian, *"administrazioak erreziklajearen gaiari eman dion bultzada dela eta, konpetentzia handia dugu".*

Hala ere, bere ustez, oraindik beste herrialde batzuekin alderatuz gero, hemen ia ezer ez da egin. *"Kartoia asko erreziklatzen da; baina hemen paper guztiaren %50a besterik ez da erreziklatzen. Alemanian eta dena erreziklatzen da".*

### Zuretzat materiala erreziklatu beharrik badago?



**Eli Aldai**

Bai, natura ez izorratzeko, zuhaitz gehiago ez mozteko, eta produktuak berriz egiten energiarik ez gastatzeko. Paperak, egunkariak, botilak, pilak... uste dut gauza asko errezikla daitekeela.

### Kontenedoreak edo edukiontziak erabiltzen dituzu?



**Rosario Muruamendiaraz**

Bai, propagandako paper ugari iristen da, eta dena botatzen dut edukiontzietara. Lehen ez zegoen hainbeste zabor eta zikin, dena sutan erretzen zen, eta sutako hautsa besterik ez zen geratzen. Zikinak jan behar gaitu!

### Zerbait erreziklatzen duzu? Zer?



**Manuel Mondragon**

Pilak. Papera eta bidrioa zakarrontzira botatzen ditut. Gauzak asko aldatu dira, eta orain higieneagatik gero eta gehiago erreziklatzen da. Lehen edozein tokitan botatzen ziren gauzak, orain gehiago zaintzen da.

### Jendea gero eta kontzientziatuago dago zure ustez?



**Arantzazu Agirrezabal**

Orain lehen baino zabor gehiago egiten da, eta jendea kontzientziatuago dago gauzak erreziklatu egin behar direla. Etxe bakoitzean material desberdina sailkatzeko edukiontziak jartzea ez da soluzioa.

### Plastikoa eta ehuna ere bai

Uzarraga enpresan papera eta kartoia dira langai nagusiak, baina beste materia batzuk ere berreskuratzen dituzte, gero errezikla daitezen. *"Ehuna eta plastikoa ere berreskuratzen ditugu. Ehun lantegietan akats askorekin ateratzen dira oihalak, eta Bergaratik haria, oihal pusketak... ekartzen ditugu. Paperarekin bezala, sailkatu eta prentsatu egiten dugu, eta gero Valentziara eramaten dugu, borrasa lor dezaten. Plastikoari dagokionez, berriz, polietilenoa eta poliproplenoa (oso plastiko gogorrak) berreskuratzen ditugu; gero fundidoretara eramaten dugu, eta han, besteak beste, bulegoetarako piezatxoak egiten dituzte".*

## Hondakinak nola gutxitu

- Erosketetara eraman itzazu zeure poltsak
- Laga supermerkatuan behar ez dituzun enbaseak. Alemanian oso emaitza onak izaten ari da.
- Saihestu material desberdinekin egindako enbalajeak. Baita plastiko askorekin datozenak ere. Produkto askok ez dute behar enbalajerik, hortaz, saiatu enbalajerik izan ez dezaten.
- Aukeratu enboltorio erreziklagarriak: kartoia, bidrioa, papera, galtzairua.
- Saiatu enbase erreziklagarriak edo bueltatzekoak dituzten produktuak erabiltzen.
- Garbiketarako erabili, betetzen diren ontzietan datozen produktuak.
- Aukeratu paper parafinatuan datozen jakiak.




### Aurki beste edukiontzi bat

Paper-kartoien edukiontziek albo batean pilak batzeko kaxa txiki bat izaten dute. Pila horien artean bi motatakoak egoten dira. Batetik, botoi-pilak, arriskutsuenak. 2 kilo batutakoan Madrilera eramaten dira. Beste pilak, berriz, 10 tona batutakoan Azuako Recipilasen erreziklatzen dira. Oraingoz gure kaleetan dauden edukiontziak pilenak, paper-kartoiarenak eta bidrioarenak dira, baina baliteke laister beste bat izatea, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste edukiontzi bat jartzeko asmoa du. Edukiontzi horretan metala, plastikoa eta tetrabrika jasoko da.


KARATE-SHOTOKAN

GICHIN FUNAKOSHIKO KARATEA (Karate-Do asmatu zuena) IKASI nahi baduzu, ZATOZ gurekin.



• Joxean Iñarra — 2. DAN Shotokan G. B.
• Aitor Delarriberete — Shotokan Gerriko Beltza
• Mikel Arakistain — Shotokan Gerriko Beltza

*Bergarako karate* talde bat gara, karate munduan *esperientzia haundia* duen jende gaztez osatutako taldea.

- Klaseak euskaraz ematen ditugu.
- Euskal Karate Federazioko kide.
- Kirol Kontseilu Gorenak homologatutako tituluak.
- Hilean behin JOSE MARI VAZQUEZekin (5. Dan Gerriko Beltza, entrenatzile nazionala, Euskal Karate Federazioko Zuzendari Teknikoa, Epaile nazionala) ENTRENATZEKO AUKERA.

☎ 76 07 21

*Hau guztia ASTELEHEN, ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN, 18:00etatik 19:00etara MIGUEL ALTUNA BERRIAN. ZATOZ, ez zara damutuko.*

# Eguraldi polita eta kalitate oneko ganadua Elosun

Bestetan baino jende gutxiago hurbildu arren, aurten ere guztiz arrakastatsua gertatu zen Elosuko Mendiko Ganadu Feria. Guztira 180 ganadu buru inguru izan ziren ikusgai goizetik Elosun eta era berean salmenta postu dexente zabaldu ziren feria gunearen ondoko zelaian. Joseba Lizarralde Elosuko auzoalkateak eta Jose Miguel Muguruza baserritarrak osatutako epaimahaiak abereen maila goraipatu zuen. Lizarralderen hitzetan, *"ganadu oso ona aurkeztu da, bestetan baino gutxiago beharbada baina kalitate oso onekoa. Anekdota moduan, aurten 4 basurde izan dira"*.

Guztira, 6.000 lagun inguru izan ziren zapatuan Elosun. Lizarralderen ustetan, *"aurreko eguneko eguraldi txarrak bestetan baino jende gutxiago etortzeko orduan eragina izango zuen. Markinan ere feria zegoen eta horrek jendea sakabanatuko zuen. Hala ere primerako eguraldia izan genuen, ez dago gehiago eskatzerik"*.



Lehiaketara aurkeztutako ganaduaren kalitatea azpimarratu zuen epai-mahaiak.

Asko izan ziren bazkaltzera Elosun geratu zirenak. Arratsaldean, Elosuko Benta-Osteren zaldia eta Aizarnazabaldo Etxaberen mandoaren arteko demak, 850 Kg.ko harriarekin, ikusmina piztu zuen. Zaldia nagusitu zen bi plazako aldearekin.

## Mendiko ganadu feriako sarituak:

- **Ganadu buru talderik onenaren sari berezia:** Antonio Olaizola azpeitiarra (Agite baserrikoa).
- **Blonda arrazako behirik onenarena eta zezenik onenaren saria:** Antonio Olaizola (Agite).
- **Pirenaika arrazako behirik onena:** Hiru Mendi Elkartea Kooperatiba.
- **Asturiar arrazakoa:** Agustin Badiola elosuarra (Kortaberria baserria).
- **Charolesa arrazakoa:** Jose Mari Beristain elosuarra (Ixaun baserria).
- **Limousin arrazakoa:** Jose Mari Olazabal azpeitiarrak eraman zuen.
- **Behirik onenaren saria:** Pako Badiola elosuarrak (Bentaoste baserria).
- **Behor eta zaldirik onena:** Asensio Sudupe azkoitiarra.
- **Mandorik onena:** Angel Zenperena.
- **Idirik onena:** Jesus Altube osintxuarra.
- **Ardi eta aharirik onena:** Resurreccion Balerdi altzotarra.
- **Akerrik onena:** Pello Soraluze, Errezilgoa.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

IZADI PILI GISASOLA
Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83
Santiveri
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

ITXASMENDI
ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA
☎ 76 50 64 / 76 13 61
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.



**VENTANAS SAN MIGUEL**

*Ventanas San Miguelekin... denean irabaziko duzu.*

*Erosotasunean irabaziko duzu.*

*Aurrezpenean eta energian irabaziko duzu.*

*Isolamenduan irabaziko duzu.*

*Konfortean irabaziko duzu.*

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21




**JOXAN**

Ibargarai 4, behea ☎ 76 70 29

**Egunero-egunero, Ondarroatik ekarritako arrain freskoa!!**

**arraindegia**



Joan zen zapatuan, 1996-97 denboraldirako udazken-neguko moda desfilea antolatu zuten BEDELKARreko dendariek eskerrak eman nahi dizkie desfilea ikustera joan ziren herritar guztiei.

Eskerrak eman nahi dizkie era berean desfilea aurrera ateratzeko laguntasuna eman zien hauei guztiei:

- Giartzu gimnasioa.
- Egiluz lurrindegia.
- Maritxu Muruamendiaraz ileapaindegia.
- Gerardo Puente kazetaria.
- Desfilatu zuten modeloak.
- Jam aretoa.
- Bergarako Udala.

***Joan zen zapatuan herritarren partetik jasotako erantzunak aurrerantzean ere horrelako ekimenak antolatzeko animatzen gaitu.***

# UDAZKEN-NEGUKO

**Bedelkar**

AGIRRE
AISOR KIROLAK
CRISTINA-BERGARA PIEL
IGARZA
IKUSBI
JANDEN
JAUJA KIROLAK

LAKET
NEREA
MANSO OPTIKA
SIASKA
SUBIJAI
XAMARTIN KIROLAK
ZATOIA

*96-97*

# MODA

# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

Zure zerbit-
zura!!

**Mota guztietako instalazioak**



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

---

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

***Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura***

**Doktoreak:** CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

## Osasuna

# Haginen prebentzioa



**FELIPE SUDUPE**
*(Dentista)*

**- Nolako garrantzia daukate aldizkako azterketek?**

- Urtean, gutxienez, haginen errebisio edo azterketa bat egiteko ohitura bagenu kontsulta sanitarioaren bidean egongo gineteke. Horrela ahoko minbizien %80a osatzea lortuko genuke. Gainontzeko tratamenduak kontserbadoreagoak direla esan daiteke. Bestalde oso garrantzitsua da aurreminbizien diagnostiko goiztiarra lortzea tratamenduan jartzeko.

**- Zeintzuk dira lesio horiek?**

- Leukoplasia da ezagunena; raspauarekin desprenditzen ez den plaka zuria litzateke. Ezin diezaiokegu leukoplasia gaisotasun ezagun bati (erredurak adibidez) edota ajente fisikoei (farmakoak eta abar) leporatu, tabakoari ezik. Oso garrantzitsua da lehen bait lehen kontsultara joatea diagnostiko goiztiarra egin eta tratamendua martxan jartzeko. Osakidetza gainera leukoplasiaren kontrako kanpaina bultzatzen ari da.

**- Bestalde, zeintzuk dira patologia ohizkoenak?**

- Kariesa, gaisotasun periodontalak (gengibitisa eta periodontitisa) eta aftak (ultzerak). Kariesaren kasuan faktore asko dira eragileak eta kariesa prebenitzeko esmaltearen erresistentzia haunditu daiteke fluorterapia eta hortzak ikutu gabe egiten diren enpaste moduko (seiladoreak) batzuei esker. Era berean, azukarren kontsumoa (egunean 50-80 gramo tartean) gutxitu (kantitateari baino frekuentzia jeisteari garrantzia gehiago emanez) eta plaka bakterianoa kentzen saiatu behar gara. Haginen ohizko garbitzeak plaka bakteriano horren agerpena galerazten du.

**"Urtean gutxienez haginen azterketa bat egitea komeniko litzateke"**



Azukar gutxi kontsumitzea komeni da haginak egoera onean izateko.

**- Gaisotasun periodontalei buruz zer esan dezakezu?**

- Entziaren haunditzeak lirateke eta ohizkoenak gengibitisa eta periodontitisa dira. Periodontitisaren kasuan haginen mugimenduak somatzen dira (helduetan periodontitis kronikoa eman daiteke) eta gengibitisa, berriz, entziak gorritu, haunditu edo odoletan hasten direnean izaten da.

**- Aftak zer dira?**

- Ahoko mukosan ematen diren lesio ohizkoenak dira. Bost-sei egunetara zikatrizatzen diren ultzerak dira eta kolutorio edo pomadekin errez osatzen dira.

Bestalde, esan behar da zenbait kasutan egoera bereziak eman daitezkeela. Pazientea haurdun dagoen kasuetan, diabetikoa denean, bihotzetik sufritzen duenean edo hemorragiaren bat aurkezten duenean kontu eta hijiene haundiagoz ibili behar gara eta pazienteak dentistari horren berri eman behar dio medikuak beharrezko neurriak har ditzan. Pazienteak tratamendua jaso ahal izateko antibiotikoak hartu behar izaten ditu zenbait kasutan.

KONDE

PANADEROKUA
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

# Prentsa larrosa erosi edo irakurtzeko ohiturarik badaukazu?



**Javi Arevalillo**

Ez, ez zaizkit batere interesatzen horrelako aldizkariak. Ez ditut erosten eta irakurri ere gutxitan irakurri ditut.



**Beni Perez**

Ez, ez ditut erosten baina ilepaindegian nagoenean eta begiratzen ditut. Telebistako programak (*Que me dices* etab.), berriz, ikusten ditut.



**Eusebia Akizu**

Ez daukat afiziñorik horrelako errebistetarako, noizean behin bakarrik irakurtzen ditut ileapaindegian. Parian tokatzen direnean bakarrik...



**Pablo Maria Garcia**

Paso egiten dut, ez zait batere interesatzen eta telebistako programa larrosak ere ez ditut ikusten.



**Marian Mas**

Ez, bakarrik pelukeriara joaten naizenetan. Farre piskat egiteko ondo daude. Telebistan horrelakoak agertzen direnean kendu egiten dugu telebista.



**Ander Ortigosa**

Ez, ez ditut irakurtzen eta etxean ere amak ez ditu erosten. Pelukerian bakarrik begiradatxo bat botatzen diet. Telebistan? Beste ezer ez dagoenenan igual...

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



# Brigadistak

Gerra Zibila aspaldiko kontua da guretzat. Posgerra ostean jaiotako seme-alabak gara. Euskalerrian. Abertzaletasunean (eta abertzalekerian). Eta Errepublika garaiko ezjakinean.

Gaur egun, 80-90 urte dauzkate lepogainean. 38 herrialdetatik datoz Madrilera, Bartzelonara eta Gernikara nobienbrian. Gerra Zibileko Brigada Internazionalen partaideak dira. Francoren kontra borrokan eginak. Ken Loach-en "Tierra y Libertad" eta Arandaren "Libertarias" pelikuletan azaltzen diren horietakoak.

Juan Negrin presidenteak nazionalidade española agindu zien eta 60 urte beranduago lortu dute Madrileko "Asociacion de Amigos de los Brigadistas" elkarteari esker (Kongresuan IU, PNV eta PSOEk aurkeztu zuten eskaera).

Naturala denez, 40.000 inguruko taldetik gutxik diraute bizirik eta autonomiaz hona etortzeko lain sikiera (adinak ospakizunetarako egitarauan siestarako astia gordetzera behartzen du).

Etika eta estetikaz II. Errepublika aberatsa ei zen oso. Hori mantendu nahi zuten brigadistak bueltatuko dira Estatura. PPren agintepean...

**Ainhoa ALTUNA**



# Lana euskaraz?

Kilometroak eta Nafarroa Oinez direla eta, gure hizkuntzak prentsaren lehenengo orrialdeak bete ditu eta ez da ez hori berri txarra, baina jakin badakigu gure hizkuntzak berririk sortzen ez duen garaian izango dela hizkuntz normalizatua.

Hizkuntzaren normalizazioa ez da egun batetik bestera lortzen, lan honek urte asko eskatzen ditu eta alperrik eskoletan sekulako ahaleginak egitea, gero lan-lekuan laneko hizkuntza erdera bada. Arrasateko AEDko talde bat ondo baino hobeto jabetu da arazo honetaz eta horregatik sortu dute Euskalan. Lana euskaraz betetzea da helburua, eta seguru, batek baino gehiagok pentsatzen duela nahikoa lan daukala bestela ere, gainetik egiten duen lana euskaraz egiteko.

Egia da, horrek arduratzea eskatzen du, euskaldun askok erderaz aritzeko joera daukagu eta ohitura horiek apurtzea nekeza egiten zaigu. Hala ere, inork ez dezala pentsa egoera derrepentean aldatuko denik, baina merezi du, batetik gizartean horrenbeste diferentzien eragile izan den hizkuntza, langile guztion eskura jartzea, euskara ikasteak merezi duen errekonozimendua ematea eta gure aurretik, neska-mutikoek euskaraz ikas zezaten egin duten ahalegina behar bezala buka dadin lanlekua euskaraz funtzionatzeko gertatzea ez dira makaleko arrazoiak.

Euskara guztiona bada, eta gure hizkuntza normala izatea nahi badugu, denok, euskara dakitenek eta ez dakitenek, lanpostu baten edo bestean dagoenak, barneratu behar ditu prozesu honetan ematen diren aldaketak, horregatik da horren prozesu luzea. Euskalanek bidea samurtu egiten digu lantegietako euskalzaleoi, elkarren berri izango dugu eta fabriketan jorratzen diren bide ezberdinak ezagutuko ditugu. Azken batean batzuk lehenago eta besteek beranduago baino guztietan dago egin eta poliki-poliki ibili beharra. Poliki bai, baina geldirik ez, ezta?

**Anaje NARBAIZA**

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza
Era guztietako igeltseritza lanak
Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Felipe SUDUPE
Hagin klinika
Medikuntza eta zirugian lizentziatua.
Estomatologian espezialdua.
558. kolegiatua.
GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA
Kontsultarako ordua aurretik eskatu.
Matxiategi 18 behea, ezkerra. ☎ 76 07 66









## Desfile arrakastatsua

**Bedelkarreko 14 dendak** antolatutako udazken-neguko moda desfilea arrakastatsua gertatu zen larunbatean, 1.500 lgun inguruk toperaino bete baitzuten Jam areto berria. Guztia ondo irten bazen ere, desfilea hasi baino zertxobait lehenago antolatzaileek ez zekiten egingo zen ala ez, ostiral gauean Diputazioko inspektoreek aretoa prezintatu zutelako. Azkenean desfilea egin zen eta antolatzaileak oso pozik agertu dira jasotako erantzunarekin eta pasarelan aritu zirenek egindako lanarekin. Udaberrian beste desfile bat antolatzekotan dabiltza, hasierako asmoak bete direlako. Desfilea antolatu zuten 14 denda hauetan erosketak egiteko zozketatutako 30.000 pezetako bonoa **961 zenbakia zuen Jaione Etxanizi** tokatu zitzaion.





AGOITZ
Tapizdenda
San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ARREGI
Eraikuntza materialeak
Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

## ■ Errotonda konpontzen



Diputazioko langileak Angiozarrera joateko bidearen errotonda konpondu dute azken egunotan. Aipatutako errotonda iazko martxoan egin zen baina amaitu zenean gidariek protesta egin zuten Angiozarretik jeisterakoan bisibilitatea eskasa zelako eta igoera hasterakoan kurba arriskutsua hartu behar zelako. Azkenean, Udalak eskatuta, Diputazioak errotonda konpontzeko erabakia hartu zuen. Beraz, errotonda hobetzeko, aldapa hasi baino lehen desazelerazio karril bat egin eta horrez gain errepide ondoko pareta zaharra berritu da.

## ■ Dantzari izan nahi al duzu?



Xamatz dantza taldeak, **16 urtetik gorako mutilak** behar ditu dantza taldeko kide izateko. Ikasketak direla eta, Xamatzeko dantzari asko kanpora joaten dira ikastera eta taldea utzi egin behar izan dute. Horregatik ari dira Xamatzekoak mutil berrien bila, neskak badituzte eta. Interesa dutenek, Aranzadi Ikastolara joan daitezke (Telefonicatik), astelehen eta ostegunetan gaueko 9etan edota larunbatetan goizeko 11etan.

## Zertan *dihardute* ba?



**Aitor Zabaleta** kotxe pilotu bergararrak Urrakiko igoeraren XIV. edizioa irabazi zuen domekan Azpeitian. Aitorrek 3 minutu, 16 segundu eta 70 ehuneneko markatu zuen. Bere atzetik Gerard De La Casa (BMW, 30 segundura) eta Luis Molero (Ralt, 31 segundura) heldu ziren. Guztira 48 pilotuk hartu zuten parte eta Aitorren Lola BMW Cepsa txapelketako barketa bakarra izan zen. Urrakiko proba Euskadiko txapelketarako puntuagarria zen. Fitoko probaren zai, Aitorrek dagoeneko Espainiako txapelketa irabazi du.

Airtel
HAIZETEL
Telefonia mobila
Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Mireia Larrañaga

**21 urte ditu. Arrasateko aurrezki kutxa batean dabil lanean irailetik. Klarinetea jotzen du musika eskolako orkesta sinfonikoan eta bandan.**



**- Woody Allen zinean ala klarinetea jotzen?**
- Zuzendari eta aktore ona da, klarinetea jotzen ere bai.
**- Gauzatu zaizun ametsa.**
- Lanean hasi naiz, eta hori gaur egun suertea da.
**- Birritan ikusitako pelikula.**
- *Dirty dancing*; hirutan ere ikusi dut, eta berriz gustora ikusiko nuke.
**- Faxa ala korreoa?**
- Faxa azkarragoa da, eskurago dugu, baina hotza da, irekita etortzen da, eta denek irakur dezakete.
**- Euskal pertsonaia bat?**
- Barandiaran: Euskal Herriaren alde asko egin du; oso maitatua, gertukoa eta etsairik barekoa.
**- Boxeoa gustatzen zaizu?**
- Ez. Lanbidea nola izan daitekeen ere...
**- Egunkarian gehien gustatzen zaizun atala?**
- Herriko karta eta txutxumutxuak.
**- Prentsa arrosa gustoko duzu?**
- Telebistako saioak ikusten ditut, kritikatzeko ere ikusi egin behar dira eta.
**- Erropa bat izatekotan?**
- Kollarra edo belarritakoak; eraztunak, berriz, ez zaizkit gustatzen.
**- Hitz bat izatekotan?**
- Ilargia.
**- Gehien eragin dizun pertsona?**
- Aita eta ama.
**- Mendira joaten zara?**
- Nahi baino gutxiago. Zapatuan irten eta domekan jeikitzea kostatu egiten zait.
**- Telebista aurrean lorik hartzen duzu?**
- Ez, lo hartzen ari banaiz ohera joaten naiz.
**- Mutilak zerekin daude sexy?**
- Mutilaren arabera da, ezta?
**- Dantza egiteak lotsa ematen dizu?**
- Edozein lekutan dantza egiteko ez dut arazorik.
**- Moda desfilean zergatik ez zenuen parte hartu?**
- Nafarroa Oinezera joan nintzelako.
**- Top modela izatea gustatuko litzaizuke?**
- Ez, moda disenatzailea bai. Modeloek ez dute jan ere egiten, eta makillaiarekin eta operazioekin eurek ere ez dakite nortzuk diren.
**- Zein ONGtan sartuko zinateke?**
- Nahiago dut laguntza puntuala ematea, talde batean sartzea baino.

*"Lanean hasi naiz, eta hori gaur egun suertea da. Aita eta ama dira gehien eragin didatenak. Dirty dancing ikusten ez nintzateke aspertuko. Beharra dudanean txilioak ateratzen ditut"*


Nahikari TABERNA




Rock & Roll gaua

OSTIRALA, 18 GAUEKO 10ETAN

OCTOBERFEST
OSTEGUNA ETA DOMEKA

Garagardo alemanak, holandesak eta txekoak.
PREZIO BEREZIAK

Meriendak
18:30 eta 21:00

Afariak
Saltxitxak, txerri saiheskiak, oilaskoak, txerria labean...
PREZIO BEREZIAK

INFERNUKUA
TABERNA

Nahikari TABERNA



Pintura erakusketa
ANA FERNANDEZ CALLE
San Martinetako lehiaketako lehen saria.

## ETXEBIZITZA

**Garajea** salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 25 61.

**Pisua** salgai Matxiategin. 87,5 m2. Egoera onean. ☎ 76 31 22.

**Pisua** konpartituko nuke. ☎ 76 30 01.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** salgai Espoloian. ☎ 76 58 14 / 79 83 45.

**Garajea** salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauez).

**Pisua** alokairuan jarriko nuke. ☎ 76 32 24.

**Pisua** salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

**Donostian** (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20 / 27 18.

**Bilbon** pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu. ☎ 76 03 58/76 57 70.

**Osintxun** buhardilla bat salgai. Bizitzeko egokia. Prezio oso merkea. ☎ 76 15 36.

**Pisua** salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

**Frontoian** pisua salgai. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai Martokuan prezio onean. ☎ 76 59 96.

**Garajea** (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

## DENETARIK

**Kerosenozko** estufa salgai. ☎ 76 39 75 (gauez).

**Gimnasioa** (6 mahai mugikorrak) salgai. ☎ 76 13 46.

**Zornotzara** egunero joan-etorria egiteko kotxea behar dut. ☎ 76 17 04.

**Citroen Xantia** (SS-AV) kotxea salgai. 3.000 kilometro. ☎ 76 28 50.

**Leioako** unibertsitatera arratsaldez joateko kotxea behar dut. ☎ 76 50 11.

**Dantza** sueltoan ikasteko taldea osatu nahi da. ☎ 76 22 77 (gauez).

**Liburuak** eta musika zintak prezio onean salgai. ☎ 907 22 30 22.

**Ford Scorpio** kotxea (SS-W) salgai. ☎ 76 28 07.

**Macintosh** LC III ordenagailua salgai. ☎ 76 45 69.

**Ford Fiesta** kotxea salgai (SS-L). ☎ 76 37 59.

**Urrezko** pultsera galdu dut. ☎ 76 30 00 (sarituko da).

**Mobylette** GAC motorra salgai. ☎ 76 03 01.

**Gasteizera** egunero autobusez joateko jendea behar da. 14:30etan joan, 8etan etorri. ☎ 79 32 58.

## LANA

**Neska** euskaldun batek pelukera lan egingo luke. Titulua. ☎ 76 47 62.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Lanak** ordenadorez pasatzen dira. ☎ 76 15 63.

**Mate**, fisika, kimika eta diedriko klaseak. BBB, UBI, LH. ☎ 76 24 31 (Eneko).

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Etxeko** lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

**Perkusio** ikastaroa Arrasaten. ☎ 79 80 25 (Iñaki).

**Aleman** diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Erizain** batek arratsaldez lan egingo luke. ☎ 76 54 52 (Jone).

**Majisteritzan** diplomatutako neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

**Unibertsitate** mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

**Astebukaeretan** etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 46 (eguerdiz).

**Neska** euskaldun batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 31 96.


TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
bazkari eta afariak
Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

Masterreka 24
Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak
Masterreka, 24 BERGARA

SIRIMIRI
jatetxea
PINTXO BEROAK, EGUNEKO MENUA, KARTA.
Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Amaia De Zerio

**Amaia De Zerio**k jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondoren egindako zoketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen eskultura nork egindakoa zen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Bittoriano Larrañaga** zen**.** Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Amaia De Zerio**ri eman dizkiogu.

## *Zein da baserri honen izena?*

______________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ____________ **Tfnoa:** ____________

**Saria**
**10.000 pzta.**

**Moztu paper hau eta**
**ekarri astebete baino lehen**

**BERRIGARA**
**Errotalde Jauregia Bergara**

# Labegaraietako FUTBITO Txapelketa

| 1 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Bildurbarek Opel/Lam | 6 | 2 | 13 | 4 |
| 2. Errotagain | 6 | 2 | 11 | 4 |
| 3. A Ze Flaxa Etxagi | 6 | 2 | 8 | 3 |
| 4. Ogizun | 3 | 1 | 8 | 5 |
| 5. Jauja OH Zerezos | 3 | 2 | 7 | 5 |
| 6. Azpeitxi Jatetxea | 3 | 2 | 8 | 9 |
| 7. Mongatxurra | 3 | 2 | 8 | 5 |
| 8. Bar Canalejas | 3 | 2 | 7 | 6 |
| 9. Ufala | 1 | 2 | 8 | 11 |
| 10. Ortzi | 1 | 2 | 3 | 9 |
| 11. Arloteak Oilagorra | 0 | 2 | 4 | 9 |
| 12. Madura Industrias Gol | 0 | 1 | 0 | 6 |
| 13. Pagomendi | 0 | 2 | 2 | 11 |

| 2 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Artusamak Bergatrans | 6 | 2 | 10 | 2 |
| 2. Kayak Os Jardineiros | 6 | 2 | 7 | 3 |
| 3. Soropotroak | 3 | 1 | 4 | 2 |
| 4. Agirrebeña Jatetxea | 3 | 2 | 6 | 4 |
| 5. Etxagi | 3 | 1 | 3 | 2 |
| 6. Indargorri | 3 | 2 | 3 | 3 |
| 7. La Juve | 3 | 2 | 3 | 3 |
| 8. Eri | 3 | 2 | 6 | 5 |
| 9. Uve Bikoitza Jam | 3 | 2 | 3 | 9 |
| 10. Autoberezi | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 11. Agiñaspi | 0 | 1 | 1 | 4 |
| 12. Haltzari | 0 | 2 | 3 | 7 |
| 13. Ezinleike | 0 | 2 | 3 | 8 |

| 3 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. FAC | 6 | 2 | 10 | 2 |
| 2. Moskis | 6 | 2 | 8 | 3 |
| 3. PJS | 6 | 2 | 8 | 3 |
| 4. Jakina Patxaran Team | 4 | 3 | 8 | 11 |
| 5. Guadalest | 3 | 1 | 4 | 1 |
| 6. Igandekoak | 3 | 1 | 4 | 1 |
| 7. EH Biterrak | 3 | 1 | 2 | 1 |
| 8. Txipiron | 1 | 2 | 3 | 6 |
| 9. Nahikari Hooligans | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 10. Ari Ari | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 11. MRW | 0 | 1 | 3 | 4 |
| 12. Nekrofilikos | 0 | 1 | 3 | 5 |
| 13. Construcciones Bergara | 0 | 2 | 2 | 9 |

| 4 TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Manitou | 9 | 3 | 21 | 6 |
| 2. Arbe Kirolak | 6 | 2 | 7 | 1 |
| 3. Osintxu | 4 | 2 | 8 | 2 |
| 4. Panoramix | 4 | 2 | 4 | 3 |
| 5. Polideportivo Taberna | 4 | 3 | 8 | 11 |
| 6. Pata Negra | 3 | 2 | 3 | 3 |
| 7. Komando Piperrak | 3 | 3 | 11 | 16 |
| 8. SLO | 3 | 2 | 4 | 6 |
| 9. Xurrupak | 3 | 2 | 5 | 9 |
| 10. Matxakategi | 3 | 2 | 2 | 2 |
| 11. Aldoka Maldoka | 2 | 3 | 6 | 8 |
| 12. Amilotx | 1 | 3 | 3 | 7 |
| 13. Etengabe | 0 | 1 | 1 | 5 |
| 14. Pittixak | 0 | 2 | 5 | 9 |

## Jokoz kanpo



**Gorka Areitio**
***Matxakategi***

**ZER MODUZ TXAPELKETA?**
Oso ondo esan behar, oraingoz partidu bakarra jokatu dugu eta irabazi egin dugu. Ea bide honetatik jarraitzen dugun.
**ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?**
Onena ezer ere ez; txarrena..., ez dakit.
**KANPORATUA IZAN ZARA INOIZ?**
Ez.
**PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?**
Goizez nahiago.
**TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?**
Errotagain.
**AURRELARI ONENA?**
Kepa Leturia Matxakategi taldekoa, nire taldekidea.
**SARTU DUZUEN GOLEADARIK HAUNDIENA?**
Joan zen urtean 6 eta 0 irabazi genion Aldoka Maldoka taldeari.
**ETA JASOTAKOA?**
8 eta 0 galdu genuen Txipironen kontra.
**ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO?**
3. mailara igotzea da gure helburu nagusia.
**LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?**
Darko Kovacevic, Real Sociedadeko aurrelaria.
**MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?**
Miguel Indurain.
**EUSKAL HERRIKOA?**
Abraham Olano.
**JATEKO PLATER BAT?**
Paella.

### ■ EMAITZAK

| | |
|---|---|
| A Ze Flaxa Etxagi-Arloteak Oilagorra | 4-0 |
| Bar Canalejas-Jauja OH Zerezos | 1-5 |
| Pagomendi-Mongatxurra | 1-5 |
| Azpeitxi Jatetxea-Bildurbarek Opel/Lam | 4-7 |
| Ogizun-Ufala | 8-5 |
| Errotagain-Ortzi | 6-0 |
| Soropotroak-Haltzari | 4-2 |
| Artusamak Bergatrans-Indargorri | 2-0 |
| Eri-Ezinleike | 5-1 |
| Agirrebeña Jatetxea-Kayak Os Jardineiros | 2-3 |
| La Juve-Uve Bikoitza | 1-2 |
| Igandekoak-Txipiron | 4-1 |
| PJS-Ari Ari | 3-2 |
| MRW-Jakina Patxaran Team | 3-4 |
| Guadalest-Construcciones Bergara | 4-1 |
| EH Biterrak-Nahikari Hooligans | 2-1 |
| Nekrofilikos-FAC | 3-5 |
| Osintxu-Amilotx | 1-1 |
| Aldoka Maldoka-Polideportivo Taberna | 3-3 |
| Komando Piperrak-SLO | 5-1 |
| Pata Negra-Matxakategi | 0-1 |
| Manitou-Pittixak | 6-3 |
| Xurrupak-Arbe Kirolak | 0-5 |

### ■ PARTIDUAK

**Zapatuan barruan**

**09:00:** Xurrupak-Pittixak • **Soropotroak**
**10:00:** Soropotroak-Etxagi • **Artusamak Bergatrans**
**11:00:** Artusamak-Haltzari • **Etxagi**

**Domekan barruan**

**09:00:** A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi • **Arloteak Oilagorra**
**10:00:** Pagomendi-Arloteak • **A Ze Flaxa Etxagi**
**11:00:** Mongatxurra-Jauja OH Zerezos • **AZF Exagi**
**12:00:** Errotagain-Ufala • **AZF Etxagi**
**13:00:** Ogizun-Madura Industrias Gol • **AZF Etxagi**
**16:00:** Bar Canalejas-Bildurbarek • **Agiñaspi**
**17:00:** Agiñaspi-Uve Bikoitza • **La Juve**
**18:00:** La Juve-Indargorri • **Agirrebeña Jatetxea**
**19:00:** Agirrebeña Jatetxea -Ezinleike • **Autoberezi**
**20:00:** Autoberezi-Kayak Os Jardineiros • **Ezinleike**

**Domekan kanpoan**

**10:00:** Igandekoak-FAC • **A Ze Flaxa Etxagi**
**11:00:** PJS-EH Biterrak • **A Ze Flaxa Etxagi**
**12:00:** MRW-Guadalest • **A Ze Flaxa Etxagi**
**13:00:** Nekrofilikos-C. Bergara • **A Ze Flaxa Etxagi**
**16:00:** Pata Negra-Arbe Kirolak • **Etengabe**
**17:00:** Etengabe-SLO • **Osintxu**
**18:00:** Osintxu-Matxakategi • **SLO**

### ■ OHARRA

Martitzenean 19:00etan Kultur Etxean bilera izango da. Aztertuko den gaia, Antolaketa Batzordeak egingo duen proposamena txapelketa bertan behera lagatzeko, Udalak 3.000 pezeta gehiago eskatu baitu talde bakoitzeko.

## TXINPARTAK

### Donostiako maratoia

Bost bergararrek hartu zuten parte igandean Donostiako maratoian, baina hiruk lortu zuten 42 kilometroak egitea. Basilio Aranburu izan zen lehenengo bergararra, 2 ordu 39' 27"ko denborarekin . Bigarrena, Jabi Moreno izan zen, 2 ordu 59' 06"ko denborarekin. Bixente Pagaldai izan zen hirugarren bergararra, 3 ordu 3' 50"ko denborarekin. Aitor Eraña eta Roberto Zurrok ezin izan zuten bukatu, arazo fisikoak izan baitzituzten, hego-haizeak eraginda.

### Antzuolak eta Bergarak hiruna

Larunbatean antzuolan jokatu zen 2. maila regionaleko futbol derbian Bergarak eta Antzuolak hiruna berdindu zuten. Bergarak izan zituen partidua irabazteko aukerarik onenak eta azken 10 minutura arte 2 eta 3 irabazten joan zen. Partidua bukatzeko minutu gutxi falta zirenean epaileak antzuolarren aldeko penaltia adierazi zuen eta horrek berdinketa eman zien antzuolarrei. Preferente mailako taldeak, berriz, 1 eta 2 galdu zuen Oriokoren kontra partidu kaxkarra jokatu ondoren. Goio Arrietaren mutilek kanpoan etxean baino hobeto jokatzen dute.



Txapelketan aurrera egin ala ez, eta afari bat izango dute jokoan zapatuan Udal Pilotalekuan.

# Etxaniz-Elkoro: nor baino nor lau t'erdian

Jokin Etxaniz eta Aitor Elkorok lau t'erdiko txapelketako hirugarren kanporaketako partidua jokatuko dute zapatuan 16:30etan Udal Pilotalekuan. Lehen aldia da txapelketako partidu batean, banaka, elkarren kontra jokatzen dutena eta partidua irabaztea zaila izango dela aitortu dute bi pilotariek. Jokin Etxanizek esan digunez, *"partidu zaila izango da. Badakit Aitor oso ondo dabilela 4 t'erdian. Jendeak pentsatzen du atzelaria delako eta pisu asko duelako ez dela ondo moldatuko, baina ez dut uste hori horrela denik"*. Biharko partidurako taktika bereziren bat prestatu duen galdetu diogu Etxanizi. *"Dominatzea zaila izango da. Berak indar gehiago dauka eta bi esku oso onak, baina luze jokatzen ahaleginduko naiz. Halere, 4 t'erdiaren barruan ez dago taktikarik, normalean dominatzeko luze jokatu, eta aurrean bukatu egin behar da"* erantzun digu.

### Arerioa nekatu eragin

Aitor Elkoro berria da txapelketa honetan eta, Etxanizek bezela, partidu gogorra izango dela uste du. *"Txapelketako lehendabiziko partidua izango da niretzat eta nerbioak beti izaten dira lehen partiduan. Lasai irtetzen ahaleginduko gara eta batez ere nire jokoa egiten saiatuko naiz"* esan digu Elgetakoak.

Partidua irabazteko zer egin behar duen garbi dauka Elkorok, *"4 t'erdian ez dago sekreturik: pelota luze jokatu, arerioa nekatu dadin, eta aurrean bukatu. Partidurako ez dago faboritorik, biok aukera berdinekin irtengo gara eta partidu gogorra izango da"*.

Etxanizek joan zen urteko txapelketan parte hartu zuen, baina Elkorok afizionatu denboratik distantzia horretan ez duela jokatu adierazi digu. *"Aspalditik ez dut jokatu eta entrenamenduetan nahiko ondo ibili naiz. Binakakoarekin konparatuz posturak aldatu behar dira eta uste dut moldatu naizela"*. Etxanizek eta Elkorok batera entrenatzen dute Bolu gimnasioan eta partidua galtzen duenak irabazleari afari bat ordaindu beharko dio.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

♦ **Bergara-Zestoa**
2. mailako errejionala.
Domeka. 16:30. Ipintza.
♦ **Bergara-Amaroz**
Ohorezko mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.
♦ **Bergara-Real Union**
Ohorezko mailako kadeteak.
Domeka. 09:30. Ipintza.
♦ **Bergara-Mutriku**
2. mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.
♦ **Bergara-Aloña Mendi**
Emakumezkoak.
Domeka. 11:15. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

♦ **Bergara-Intxaurrondo**
Senior mutilak.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

**ESKUBALOIA**

♦ **Bergara-Usurbil**
Senior mutilak.
Zapatua. 17:30. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Zarautz**
Kadete mutilak.
Zapatua. 16:00. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Ordizia**
Jubenil mutilak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.
♦ **Bergara-Elgoibar**
Jubenil neskak.
Zapatua. 20:15. Kiroldegia.

**PILOTA**

♦ **Bergara-Tolosako Aurrera**
Kluben arteko txapelketa.
Senior maila binaka.
♦ **Bergara-Aretxabaleta**
Kluben arteko txapelketa.
Jubenil maila banaka.
♦ **Bergara-Oiartzun**
Kluben arteko txapelketa.
Kadete maila binaka.
Eguakitza. 22:00.
Udal Pilotalekua.

# Bixente Pagaldai

## 19 maratoiak egin dituen bakarra

**Bixente Pagaldai, jokatu diren Donostiako maratoiaren 19 edizioak egin dituen korrikalari bakarra da. Joan zen igandeko maratoia 3 ordu eta 6 minutuko denborarekin bukatu zuen.**

**- Zer moduz maratoian?**

- Oso nekatuta amaitu nuen. Korrika egiteko eguraldi txarra egin zuen eta bukatzeko beterania izan behar da, bestela ez dago bukatzerik. Egiten zuen hego-haizearekin postu guztietan ura edatera gelditu nintzen. Ez baduzu edaten ez dago bukatzerik.

**- Pozik egindako denborarekin?**

- Bai, pozik bukatu nuen, gutxi prestatuta joan nintzen eta.

**- Zenbat denbora maratoi bat prestatzeko?**

- Oinarri bat edukita, hiru hilabeterekin nahikoa izan daiteke. Astero gutxienez 100 kilometro inguru egin behar dira. Maratoia egiteko asko ibili behar da.

**- Donostiako maratoi guztiak egin dituen bakarra omen zara.**

- Baietz uste dut. 1.976an izan zen lehenengoa eta ordutik guztiak egin ditut. Halere beste maratoi batzutan izan naiz eta domekakoarekin 30 maratoi egin ditut guztira. Gaur egun Donostiakoa egiten dut bakarrik eta bukatzen dudanean, bizikletan ibiltzea eta mendira joatea gustatzen zait.

**- Ze urtekoa izan da maratoirik gogorrena?**

- 1.987an sekulako pajara hartu nuen. Orduan oso ondo ibiltzen ginen eta 20 kilometro, ordu bat eta 10 minututan egin genituen. Azkarregi hasi eta pajara pasatzeko banku batean lo hartu nuen. 3 ordutan bukatu nuen.

**- Maratoirik onena?**

- Egin dudan denborarik onena 2 ordu eta 29 minutukoa da, baina maratoirik onena, 40 urterekin, 2 ordu eta 30 minutu egin nuenekoa. Lasai hasi eta ondo heldu nintzen.

**- 29 urterekin hasi zinenean beste kirolik egiten zenuen?**

- Futbolean eta mendian ibiltzen nintzen. Donostiako maratoia egiteko aukera ikusi nuenean federatu egin nintzen eta betiko ilusioa betetzeko Lasarteko eta Elgoibarko krossak behin korritu nituen.

**- Nazioarteko maratoirik korritu al duzu?**

- Ez, baina New Yorkeko maratoira gustora joango nintzateke.

**- Noiz arte Donostiako maratoira?**

- Datorren urtekora behintzat bai. Fisikoki oso ondo nago eta horrela jarraitzen badut joango naiz. Zilarrezko ezteiak bete arte.



"Maratoia prestatzeko astero 100 bat kilometro egin behar dira".

## "25 maratoi korritu arte, behintzat, jarraitzeko asmoa dut"



*Argazkia: Ramiro Lopez*

# *Bergarako Or-Konpon*

Argazkian agertzen diren jokalariek Bergarako Or-Konpon futbol taldea osatzen zuten 1941 urtean. Or-Konponek lehen errejional mailan jokatzen zuen orduan eta argazkia Markinako Artibai taldearen aurkako partiduaren atarian aterarata dago, Agorrosinen.

Bergararrak errez nagusitu ziren arratsalde hartan, 4 eta 1eko emaitzarekin. Goi mailako futbola egiten omen zuten eta horren lekuko nazional mailako kategorietan aritu ziren zenbait jokalari, Melillan, Alavesen edo Valladoliden jokatuz.

Denboraldi hartan bergararrek sailkapenaren erdialdean amaitu zuten liga. Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Ramiro Lopez, Roman Lizarralde, Julio Larrañaga, Fernando Etxaniz, Andres Alzelai eta Pedro Eriz.

**Makurtuta:** Jose Mari Eriz, Anastasio Berezibar, Mariano Losada, Angel Kortabarria eta Herminio Urizar.

Industria hornikuntzak
UNIFE
Industriaren alde
MEMESA S.L.
Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

# Automobil aseguruak

**Mapfre abantailak**




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**%10eko deskontuak**

**poliza berri bat egiterakoan.**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80



# ANE ITURRIAGA

**Kirol masaia eta masaia terapeutikoa**

Herri Lagunak 3, 1.F. BERGARA
☎ 76 40 31

# Nabarmentzen da.



# Megane Classic berria.




MEGA

RENAULT